

Abisua I



Nerea Ibarzabal
KAZETARIA
@ibarnere

Bale, lehenengo ile urdina atera zait. Tontakeria bat dirudi, baina, ez dakit, iruditu zait karga sinboliko horretatik atera daitekeela probetxuzko zerbait; gogorarazi dit, adibidez, nire gorputza onartzen –maitatzen ez beti– 23 urte pasatu eta gero, hemendik aurrera etorriko diren aldaketa fisiko guztiak ere onartzen ikasi beharko dudala. Tira, baina hori oinarritzakoa da. Uste dut ile honek nire buru barrua zeharkatuko duten bi sustrai sakon dituela batez ere: batetik, izan daiteke antsietatea –heldutasun fisikoari dagokion heldutasun intelektuala oraindik lortu ez dudalako–, baina bestetik lasaitasuna –nire heldutasun intelektuala ez dutelako zalantzan jarriko hasiera batean, ile horri esker–.

Izan ere, “gutxiespen naturala” izendatu dudan teoriak –ile urdinak emandako lizentziaz– kalte-tutako asko gara gure belaunaldian. Hautespén natural usaina darion jende jakintsuaren esferari begira denbora asko igarotzen dugunongan ohiko gaitza da, eta gure iritziak, diskurtsoa eta sormen gaitasuna etengabe gutxiestera garamatza, ia naturalki. Artikulu potoloak irakurtzen ditugu, elkarriketa sakonak, bertso sublimeak, gai garrantzitsuak ulertzeko dokumentazio lana egiten dugu, baina norberak iritzi bat plazaratu behar duen unean, izan plazan, tabernan edo Twitterren, ez dugu zilegitasunik sentitzen ur handitan sartzeko. Poesia mordo bat sartu eta iskin egiten diegu gaiei, besteena entzutera mugatuz. Baina

orain ile urdin bat dut, onerako eta txarrerako. Eta horregatik ausartuko naiz galderak egitera. Nola funtzionatzen du pertsona heldu eta errespagarri bilakatzearen kontu horrek? Ez, benetan. Nola egiten duzue beti hain serio aritzeko, hain hiperkritiko eta batzuetan hain –barkatu– beldurgarriki erretxin? Zenbat Durangoko Azoka behar dira, zenbat jarraitzaile, zenbat nobela, zenbat nobelaren aurkako manifestu, zenbat proiektu kulturalen gidaritza, kafe eta galleta, Amoranteren kontzertu? Zenbat harri giltzurrunean, zenbat ume, zenbat ile urdin edo eroritako ile, pentsatzen duzun hori bota eta inoren iritziaren beldur ez izateko? Belaunaldi-kide asko galdu ditut bidean, zuei, jakintsuoi, imitatzen hasi eta alde guztietatik egurtu dituztenak hitz potoloegiak erabiltzearen. Beraz, adin bat egon behar da, zerbaiten kopuru zenbagarri bat. Edo agian zuen iritziaren heldutasunaren inguruan izan ditzakezuen zalantzak ezkutatzean dago gakoa.

Hau abisu bat baino ez da, zuen gainbegiratuaren erruz Manuel Bartualen estiloko istorio bat idaztera ere ausartuko ez ginatekeenon partez. “Gutxiespen naturalak” idatzitako dena atoa ezabatzeko eskatzen didan arren, ile urdina den berme bakarrari behatzekin eutsita esan nahi dizuet XX. mendeko azkeneko uztak ere badakie-laz zerbait, asko zuei esker, baina ez dena. Gu ere zahartzen ari gara, eta laster berdin izango digu denak. Beldurtu zaitezte. ■

Kurtso hasieran, autogestioa



Itziar Bardaji
Goikoetxea
IRAKASLEA

Iruñeko auzo aberats batean, etxe abandonatu baten teilatua zulatzen hasia da. Okupazio mugimenduko gazte batzuk eta kalean bizi ziren etxegabe batzuk bertan bizi dira elkarrekin, eta etxea konpontzen ari dira. Elkarlana eta elkarbizitza aurrera doaz, arduratze aktiboaz eta elkartasunez. Etxe Ikusezina deitu duten horretan ematen den bi munduren loturak, gizarte zerbitzu eta abarren asistentzialismoa eta ondoriozko mailakatze soziala gaingaitu lezake.

Handik ez oso urrun, alde zaharrean, Marques de Rozalejo Jauregiko ateak irekitzen dira auzoari eta hiriarri gaztetxe berrira ongietorria emateko.

Gaztetxe okupatu, hau da, gune aske batean garatu daitekeenak, hiritar umetuak nahiago dituen sistemaren neurritik diseinaturako instituzioetatik, bihotz onez bada ere, gazteriarri eta auzoari eskaini dakioken espazio sasi-autogestionatu eredu oro gaingaitzen du. Atzeko hamarkadei begira, nik uste garbia dela gaztetxerik gabe Euskal Herria desberdina izango zela. Edo alderantziz, beste toki batzuen igualagoa, igualegia.

Bi proiektuak dira legeaz kanpokoak, eta horrela behar dute izan beren izaera ez galtzeko. Biak daude momentu honetan arriskuan. Babestea merezi du. ■